

PRENTSA OHARRA

BILBOKO UDAL TXISTULARIEN BANDAK BERE FORMATU TRADIZIONALA HARTUKO DU BIHAR ASTEAZKENA EUSKALDUNA JAUREGIAN EUSKAL DOINU HERRIKOIEI ESKAINIKO DION KONTZERTUAN

● **Ansorena, Erauskin, Olaizola eta Zubizarretaren obrak eskainiko dizkigute Garikoitz Mendizabal, Idoia Kareaga, Gorka Zabaleta eta Asier García**

● **Beste batzuen artean, Jesús Guridiren 'Amaya' euskal operako 'Ezpata Dantza' interpretatuko dute txistulariek.**

● **Kontzertua, 20:00etan eta doako sarrerarekin Euskalduna Jauregian izango da.**

Bilbon, 2010eko urtarrilaren 26an. Bilboko Udal Txistularien Bandak, **BIHAR** asteazkena 27, udazken-neguko denboraldiaren kontzertu zikloaren baitan, **euskal kantu herrikoiez** osatutako kontzertua eskainiko du. Euskalduna Jauregiko A3 aretoan izango da **20:00etan** doako sarrerarekin (edukiera bete arte).

Konposaketa molde berriekin txistuaren musika eraberritu baten ikuspegia eskaini ziguten KEtan taldearen emanaldiaren ondoren, **Garikoitz Mendizabalen** zuzendaritzapean dagoen taldeak bihar eskainiko duen kontzerturako aukeratu duen errepertorioa, tradizionala da, bi txisturekin (**Mendizabal bera eta Idoia Kareaga**), silbotea (**Gorka Zabaleta**) eta atabala (**Asier García**).

Okasio honetan, euskal errepertoriooko autore klasikoen doinuak eskainiko dizkigute, hala nola, **Isidro Ansorenaren** 'Ume eder bat' eta 'Txistulariak ertilari'; **José Antonio Erauskinen** 'Ikaskiña mendian'; **José Oilazolaren** 'Mendiko aizeak' eta **Víctor Zubizarretaren** 'Txistulariak' obra. Kontzertuari amaiera emateko, **Jesús Guridiren** 'Amaya' euskal operako 'Ezpata dantza' eta egile ezezagun baten 'Minueto' bat entzuteko aukera izango da.

Ziklo honen hurrengo kontzertua **otsailak 10 asteazkenean** izango da eta emanaldi hau **Donostiako Txistularien Bandaren** eskutik izango da.

Udal Txistularien Banda BILBAOMUSIKAREN ardurapean dago, Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpeko organismo autonomoa, Musika Eskola eta Udal Bandaren kudeaketaz ere arduratzen dena.

Informazio gehiago:

PRENTSA-BULEGOA: L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos

Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. saila, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 -Faxa: 94 439 30 56

Eskukoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com